

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### **Hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainketa aldia jakinaraztea eta kobratzea. 2018ko ekitaldia**

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2018ko azaroaren 1etik abenduaren 7ra bitarteko egun baliiodunetan (egun biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2018ko ordainagiriak.

B) Betearazte aldia: 2018ko abenduaren 10etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko lekua eta modua.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratutako ordainagiriak, hiri ondasunen ordainagiriak badira, azaroaren 5ean kobratuko dira, eta azaroaren 12an hiri ondasunen ordainagiriak badira.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalaren duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Oion, 2018ko urriaren 24a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA**